



Iturbazpikoa etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa:



43° 11' 28"

2° 36' 7"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casería rústica titulada Yturbe y su casa accesoria... situadas en la barriada de Sarria jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprenden juntamente con sus zaguanes y dos tejabanas trescientos setenta y ocho estados cuadrados superficiales de planta solar, y las que se componen de piso bajo y alto a manera de entresuelo, siendo la una de dos viviendas y la otra de una, con sus correspondientes cuadras y habitaciones...”
DJE, 1/210 or. (1868)

Errepidearen kontran kokatzen den baserri-etxe hau egun erdi-erorita dago, eta jatorrizko *Iturbe* (**Ikus Iturbe**) baserriaren alboko etxea edo eranskina zen. 1868ko eskritura batean horrela irakur daiteke (betiere, *Iturbe* baserriari erreferentzia eginez): “... la casería rústica titulada Yturbe y su casa accesoria...”. *Iturbegoitia* (**Ikus Iturbegoitia**) baserriarekin gertatzen ez den bezala, etxe honen gaineko erreferentziak XVIII. mendekoak dira bakarrik: *Yturbe de Yuso* (1704, Bizkaiko su-eroldak), *Yturbe Beazcoa* (1723, BAHp, A258/30.), *Yturbe Veazcoa* (1773,

BAHP, A421/1.) eta 1796ko su-eroldan agertzen zaigun *Yturbe Aspicoa*. Hortik aurrera, seguruena *Iturbe* baserriarekin batera agertuko da loturik.

Nahiz eta handiena erorita egon eta fatxada nagusia desagertu den, eraikinak XIX. mendeko etxeen itxura du: bi solairu eta ganbara zituen; hormak harlangaitzezkoak ziren eta harlandua kantalen eta leihoen ertzak indartzeko erabili zuten.

toponimia

Izenak berak dioten bezala *Iturbe* etxe multzoan beheko aldean dagoen etxea. Bizkaian ohikoak dira auzo-izena+etxearen ezaugarria egitura duten izenak eta horregatik Bizkaikoak dira deiturarik luzeenak Euskal Herri osoan. Dokumentazio zaharrean *Iturbebeaskoa* moduan ageri da. Beaskoa eta Azpikoa gauza bera da, baina Beaskoa (Goieaskoa bezala) zaharragoa. Horregatik, nahiko arrunta da dokumentazio zaharrean beaskoa agertzea eta gaur egun azpikoa deitzea. Sarritan beaskoa baino zaharragoa den beitia ere agertzen da eta horregatik pentsa genezake XVII. mendean Abadiñon ageri den *Iturbebeitia* deitura hemendik sortu zela, goiko etxeari *Iturbegoitia* esaten baitzaio. Badirudi beasko hori behekotik sortu zela.